

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Onestea administrazio orokorreko teknikarien 5 lanpostu betetzeko hautatze-prozesuaren oinarri espezifikoa, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 3an emandako Erabakiaren bidez onetsitako 2020ko lan-eskaintza publikoaren (2020ko abuztuaren 10eko 89. ALHAO-n argitaratutakoaren) barruan, eta hautaketa-prozesuaren deialdia egitea

2020ko abenduaren 11an Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren bidez, honako hau ebatzi da:

LEHENENGOA. Onestea administrazio orokorreko teknikarien 5 lanpostu betetzeko hautatze-prozesuaren oinarri espezifikoa, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 3an emandako Erabakiaren bidez onetsitako 2020ko lan-eskaintza publikoaren (2020ko abuztuaren 10eko 89. ALHAO-n argitaratutakoaren) barruan, eta hautaketa-prozesuaren deialdia egitea:

ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA. OINARRI ESPEZIFIKOAK

Lehenengoa.- Eskaintako lanpostuak

Hautatze-prozesurako deialdia egiten da, lehiaketaoposizioaren bidezko sarrera libreko sistemaz administrazio orokorreko teknikarien bost (5) plaza betetzeko (A taldea, A-1 titulazioa-zpitaldea), administrazio orokorreko eskalakoak, eta teknikarien azpieskalakoak eta A taldeko ordainsariekin, 2020ko lan-eskaintza publikoaren barruan. Hautatze-prozedura osatzeko zati gisa, praktikaldi bat egin beharra xedatu da.

- Bi (2) lanpostuk derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna dute.
- Hiru (3) lanpostuk derrigorrezko 4. hizkuntza-eskakizuna dute.

Karrerako funtzionarioen karguaren jabetza hartzeko unean hutsik dauden lanpostuen araberakoa izango da zerbitzua emateko destinoa.

Deialdian sartzen den plazen kopurua alkateudalburuaren ebazpen bidez handitu ahalko da hutsik gelditzen diren eta deialdi honetan sartuko diren beste plazekin. Hala badagokio, onartutako pertsonen zerrenda argitaratu aurretik egin beharko da handitze hori.

Bigarrena.- Betekizunak

Oinarri orokorretan ezarritakoez gain, lizentziatura edo graduako titulu akademiko haue-takoren bat eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki: Zuzenbidea, Politika eta Administrazio Zientziak, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Ekonomia, Aktuariotza eta Finantza Zientziak edo baliokidea.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.

Hirugarrena.- Azterketa-eskubideak

Hautaprotetan izangai gisa parte hartzeko izena eman nahi dutenek azterketarako eskubi-de-tasak ordaindu beharko dituzte, Audio Udalak indarrean dituen ordenantza fiskaletan agertzen denarekin bat.

Nolanahi ere, eskubideak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko dira azterketa-eskubideak.

Laugarrena.- Eskabide-orriak

Hautatze-prozesuan parte hartu nahi dutenek udal webgunean (www.laudio.eus) dagoen eskaera elektronikoa erabili beharko dute, edo Laudioko udaletxera joan beharko dute, Herritarrentzako Arreta Zerbitzura (HAZ), eskabide-orria aurkeztera. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango dira eskabide-orriak.

Eskabide-orria hogeita hamar (20) egun balioduneko epean aurkeztu behar da, tasak ordaindu izanaren agiriarekin batera, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Halaber, hautatze-prozesuan parte hartzeak esan nahi du baimena ematen dela hautatze-prozesuaren edozein unetan Udalaren Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko langileek beharrezko gaitasun funtzionala ziurtatzeko egokitzat jotzen dituzten kontrol edo azterketak egiteko.

Oinarri orokorretan aurreikusitako ondoretarako, eta lan-poltsak eratzeari dagokionez, hautagaiak prozesuan parte hartzeko eskabide-orrian adierazi beharko dute oinarri hauetan aipatzen diren hautatze-prozesuak egitearen ondorioz Administrazio Publikoko beste erakunde batzuei honako datu hauek lagatzearen aurka dauden: izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea, harremanetarako telefonoa, helbide elektronikoa eta prestakuntza maila. Datu horiek lagatzearen helburu bakarra izango da erakunde horiek parte-hartzaileei lan-eskaintzak egin ahal izatea legeen arabera baldintzetan. Ez bada horren aurkako iritzia esanbidez ematen, baimena ematen dela ulertuko da.

Bosgarrena.- Hautatze-prozesua

Hautagaiak lehiaketa-oposizio bidezko sarbide libreko sistemaren bidez hautatuko dira. Sistema horretan, hurrenez hurren, oposizio-fasea eta merezimenduak baloratzean datzan lehiaketa-fasea egingo dira. Oposizio-fasea egingo da lehenik. Prozesua osatzeko, praktikaldia egin beharko da.

5.1. Oposizio-fasea.

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa ditu, guztiak derrigorrezkoak eta kanporatzaileak.

5.1.1. Lehenengo ariketa.

Test motako 120 galderako proba bat egingo da, erantsitako gai-zerrendari buruzko lau erantzun aukerarekin. Ariketa honetan, puntu batekin baloratuko da erantzun zuzen bakoitza, eta erantzun oker bakoitza -0,33 punturekin zigortuko. Erantzun gabeko galderak eta erantzun bikoitzek ez dute penalizaziorik izango.

Horrela, 120 puntu lortu ahal dira gehienez (proba hau gainditzeko 60 puntu lortu beharko dira gutxienez), eta puntuazio maximo horrek azken puntuaziorako 20 puntu balioko ditu.

5.1.2. Bigarren ariketa.

Idatziz garatu beharreko bi zati hartzen ditu. Ariketa hau egiteko bost ordu emango da.

- Lehenengo zatian, Epaimahaiak ariketa hasi baino lehentxeago proposatuko duen gai bati buruzko ebazpen-proposamena jasoko duen txosten bat idatzi beharko da, plazak berezko dituen eginkizunen edukiari edota erantsitako gai-zerrendan jasotako gaiei buruz.

- Bigarren zatian, kasu praktiko bati edo batzuei buruzko galderei erantzun beharko zaie, plazak berezko dituen eginkizunen edukiarekin edota erantsitako gai-zerrendan jasotako gaiekin lotuta.

Proba honek irauten duen bitartean, hautagaiak uneoro erabili ahal izango dituzte lege-tes-tuak, jurisprudenzia-bildumak nahiz paperezko kontsultaliburuak. Ezingo da gailu edo euskarri elektronikorik erabili.

Ariketa honetan, funtsean, arrazoitzeko gaitasuna, konklusioak planteatzeko eta formulatzeko sistematika eta aplikatu beharreko araudiaren ezagutza eta interpretazio egokia baloratuko dira.

Ariketa bakoitza 0 puntutik 10era baloratuko da, eta proba gainditu ahal izateko gutxienez 5 puntu lortu beharko dira ariketa bakoitzean.

Horregatik, gehienezko puntuazioa 20 puntukoa izango da.

5.1.3. Hirugarren ariketa.

Derrigorrezkoa eta kanporatzailea izango da euskarazko derrigorrezko 3. eta 4. Hizkuntzaeskakizuna duten plazen kasuan.

Euskararen hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko da epaimahaiak erabakitako eran. Horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako jarraibideak erabiliko dira, halaxe ezartzen baitu Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 99.1. artikulua.

Edonola ere, azkena izango da euskararen ezagutza egiaztatzeari buruzko ariketa, HAAE-k hautatze prozesuetan hizkuntza-eskakizunen azterketak egiteko ezartzen dituen deialdi bateratuen egutegira egokitu beharko da.

Honako hauek ez dute hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko ariketa egin beharko: HAAE-n 3. edo 4. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C-1 jakintza-mailaren titulu edo egiaztagiriren bat dutenek (titulu eta egiaztagiri horiek apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuko 41. artikuluan eta azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuko 3. artikuluan nahiz hurrengoetan daude zerrendatuta). Hori, baldin eta ariketa egin aurretik maila hori dutela egiaztatu badute, Audio Udalari ziurtagiria aurkeztuta; izan ere, ziurtagiria aurkeztu ezean, ez da salbuespen hori aplikatuko.

Hala ere, ziurtagiri hori ez da aurkeztu beharko hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dagoela agertzen denean Euskarako Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan. Horretarako, parte-hartzaileak berariazko baimena emango dio Audio Udalari hori horrela dela egiaztatu dezan aipatutako erregistroan.

Halaber, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean hizkuntzaeskakizunak egiaztatu nahi dituztenek.

5.1.4. Puntuazioa.

Lehenengo eta bigarren ariketak derrigorrezkoak eta kanporatzaileak izango dira, eta horietako bakoitza 0,00 eta 20,00 puntu artean kalifikatuko da. Horietako bakoitzean gutxienez 10,00 puntu eta bigarren ariketaren zati bakoitzean gutxienez 5,00 puntu lortzen ez dituzten hautagai guztiak automatikoki kanporatuko dira.

Hirugarren ariketa, euskara-proba, gai edo ez gai gisa kalifikatuko da, kasu bakoitzean derrigorrezko hizkuntza-eskakizunaren arabera.

Beraz, oposizio-fasean lor daitekeen gehieneko puntuazioa 40 puntukoa izango da.

5.2. Lehiaketa-fasea.

Oposizio-fasea amaitzen denean, fasea gainditu duten hautagaiekin hasiko da lehiaketa-fasea. Lehiaketafasean, hautagaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak baloratuko dira, eta merezimenduetarako baremo honen arabera dagozkion puntuak esleituz egingo da balorazioa.

Merezimenduak oinarri hauetan deskribatutakoaren arabera baloratuko dira, eta ezin izango da bestelako merezimendurik baloratu.

5.2.1. Lan-esperientzia.

Lan-esperientzia baloratzeko, hautagai bakoitzari puntu hauek emango zaizkio: plazari dagozkion eginkizunak betez Administrazio Publikoan emandako zerbitzuengatik 11,00 puntu gehienez (1,00 puntu zerbitzuan emandako urte bakoitzeko, edo sei hilabeteko edo hortik gorako zatikia).

Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindako denboratzat hartuko dira.

5.2.2. Prestakuntza-ikastaroak.

HAEE-k, APIN-ek eta APEI-ek antolatutako ikastaroez gain, unibertsitateek, Hezkuntza Ministerioaren mendeko ikastetxeek edo autonomia erkidegoetako hezkuntza sailek emandakoak ere baloratuko dira, baita edozein zentro ofizialek (ministerioek, sailek, merkataritza-ganberak, elkargo ofizialek eta abarrek) eskusiboki antolatutakoak ere, betiere, bertaratze- edo irakaste-ziurtagiria zentro horiek egina bada eta 2012ko abenduaren 31tik aurrera amaitu bada ikastaroa.

Era berean, alegatzen diren prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak plazaren berezko eginkizunekin zuzenean lotutako gaiei buruzkoak izan beharko dira.

Ikastaroetara joan izanaren ziurtagiriak ikastaroko ordu zehatzen kopurua jasotzen ez badu, ezin izango da baloratu, salbu eta izangaiak horren iraupena egiaztatzen badu ikastaroa eman zuen erakundeak emandako ziurtagiriaren edo egiaztatzearen bidez.

Titulu akademiko ofizial bat lortzeko ikasketa-plan bateko ikastaroak ez dira baloratuko.

Egiaztatutako ikastaro-ordu bakoitzeko 0,01 puntu emango da, eta gehienez 3,5 puntu lortu ahal izango dira horrela.

5.2.3. Hizkuntzak.

Europar Batasuneko hizkuntza bat edo bi jakiteagatik, (ezin da hizkuntza beraren maila ezberdinen puntuak batu), gehienez 2 puntu lortu ahal izango dira, banaketa honen arabera:

- Europako erreferentzia-esparruaren B-1 maila: 0,35 puntu.
- Europako erreferentzia-esparruaren B-2 maila: 0,7 puntu.
- Europako erreferentzia-esparruaren C-1 maila: puntu 1.

Hizkuntza berak ezin izango du balorazio bat baino gehiago eragin; beraz, mailarik altuena duena bakarrik hartuko da kontuan.

5.2.4. Informatika.

Ezagutza informatikoen maila merezimendu gisa baloratuko da, Informazioaren Gizartearen Euskadi Planak KZGuneetan eskura jartzen dituen moduluak eskuratuz, IT-Txartela ziurtatzeko sistemaren bidez edo beste erakunde publiko batzuek emandako ziurtagiri baliokidearen bidez.

Eskuratzeko azken eguna oposizio-faseko lehen ariketa egiten den eguna izango da.

Laudio Udalak ofizioz eskatuko dio erakunde jaulkitzaileari (IT-Txartela) hautagaiek lortutako akreditazioen ziurtagiria.

Beste erakunde publiko batzuek emandako ziurtagiri baliokideren bat dutenek epaimahai kalifikatzaileak ezarritako epean egiaztatu beharko dute.

Nolanahi ere, IT-Txartelak edo ziurtagiri baliokideak merezimenduak aurkezteko fasean alegatu beharko dira.

Egiaztagiri hauetako bakoitza 0,5 punturekin baloratuko da, eta 1,5 puntu emango dira gehienez:

- Word 2010
- Word 2000
- Word XP
- Word 2003
- Word 2007
- Excel 2010
- Excel 2000
- Excel XP
- Excel 2003
- Excel 2007
- Access 2000
- Access XP
- Access 2003
- Ofimática XP
- Ofimática 2003
- Access 2010
- PowerPoint XP
- PowerPoint 2003
- PowerPoint 2007
- PowerPoint 2010
- Office XP

Aplikazio bateko maila aurreratuko ziurtagiriek indargabe utziko dituzte aplikazio bereko oinarrizko mailetakoak.

Geroagoko bertsio-aplikazio baten ziurtagiriek aurreko bertsioenak deuseztatuko dituzte.

5.2.5. Puntuazioa.

Lehiaketa-fasean gehienez 18 puntu lor daitezke.

Seigarrena.- Prozesuaren emaitzak

Bi faseetan lortutako puntuazio guztien baturak zehaztuko du hautatze-prozesuaren azken kalifikazioa, betiere, bi faseak gainditu badira. Berdinketa gertatuz gero, oinarri orokorretan ezarritakoa aplikatuko da.

Hautatze-prozesua amaitutakoan, epaimahaiak iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko ditu gainditutako pertsonen behin-behineko kalifikazioak. Guztira lortutako puntuaziorik handienetik txikienera ordenatuko dira kalifikazio horiek, eta berariaz adieraziko dira hautatutako pertsonak. Hautatutakoen kopuruak ezingo du gainditu deitutako plazen kopurua.

Gaindituen behin-behineko zerrenda argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute egokituz jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Epaimahaiak, erreklamazioak ebatzi ondoren, eta hala badagokio, hautatze-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrenda argitaratuko du.

Epaimahaiak deialdia hutsik utzi ahal izango du, baldin eta uste badu probetan izangaietako batek ere ez duela lortzen lanpostua garatzeko behar besteko mailarik.

Zazpigarrena.- Dokumentazioaren aurkezpena

Prozesuaren emaitza jakinarazten den egunaren biaharmunetik 15 egun balioduneko epean, hautatutako pertsonak oinarri orokorretan jasotako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte Laudioko udaletxeko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ).

Zortzigarrena.- Praktikaldia eta prestakuntza

Hautatze-prozeduraren beste fase bat izango da praktikaldia. Bertan izango dira lehiaketa eta oposizioa faseetan puntuaziorik onena lortu duten hautagaiak; plazak beste hautagai izango dira gehienez. Praktikaldiaren fasea plaza dagoen arloan egingo da, gehienez ere, sei hilabetez. Datak bere garaian iragarriko dira.

Ebaluazioko prozedura jarraia izango da praktikaldian. Aldi horretan, hamabost egun natural baino gehiagoko ausentzia justifikatuak daudenean, egun solteetan edo jarraian, ebaluazioa eten egingo da. Kasu horretan, interesdunak praktikaldi osoa bete beharko du.

Hautagaiak praktiketako funtzionario izendatuko dira eta eskubidea izango dute udal langileen ordainsariak arautzen dituen Erabakian ezarritako ordainsariak jasotzeko; halaber, alta emango zaie funtzionarioei aplikatzen zaien Gizarte Segurantzako araubidean.

Egoera horretan iraungo dute izendapen-dekretuan adierazitako egunetik hasi eta lanpostua jabetzan hartu arte, edo praktikaldian deskalifikatuak izan arte.

Deialdiko plazako eginkizunak eta zereginak behar bezala betetzeko eskatzen diren trebeziak eta gaitasunak etengabe ebaluatuko dira praktikaaldian, oinarri orokorretan agertzen den bezala.

Hautagaia gai edo ez gai kalifikatuko da eta beharrezkoa izango da gaitasuna lortzea hautatze-prozedurako fase hau gainditzeko.

Hautagaien izendapena praktikaldiko edozein unetan utzi daiteke indargabe, betiere, hautagaiak gaitasun edo aprobetxamendu egokia ez badu. Horrela denean, arloko buruak proposamena egingo dio hautatze-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari eta horrek, proposamena aztertu ostean, izendapena indargabe utzi ala ez erabakiko du; hori egin ondoren, erabakitakoaren arabera proposamena egingo dio alkate-udalburuari.

Bederatzigarrena.- Izendapena eta lanpostua jabetzan hartzea

Laudio Udaleko karrerako funtzionarioen izendapena oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera egingo da.

Hamargarrena.- Aldi baterako enplegurako poltsa

Hautatze-prozesu honen emaitzak kontuan hartuta lan-poltsa bat egingo da, oposizio-faseko ariketak gainditu dituzten hautagaiekin. Lan-poltsa hori aldi baterako langile beharrei erantzuteko erabiliko da, eta Laudio Udaleko lan-poltsak arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera kudeatuko da, hurrengo paragrafoan ezarritakoa ere kontuan hartuta.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera eraturako lan-poltsa agortzen bada, lehentasuna izango dute beste lan-poltsa batzuen aldean derrigorrezko ariketa eta ariketa kanporatzaile gehien gainditu dituzten pertsonak osatutako zerrendek, gainditutako ariketa horietan lortutako guztizko puntuazioaren arabera hurrenkeran.

Berdinketa gertatuz gero, oposizio-faseko bigarren ariketan kalifikazio altuena duenaren aldeko erabakia hartuko da.

Lan-poltsa berriaren indarraldia hiru urtekoa izango da, onesten denetik, eta urtero luzatu ahalko da, denbora-mugarik gabe, alkate-udalburuak besterik ebatzen ez badu.

Hamaikagarrena.- Aurka egiteko bideak

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen nahiz Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legearen 46. artikuluen arabera, oinarri hauen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da Alkatetzan hilabeteko epean, edo zuzenean aurka egin ahalko zaio administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, hilabete biko epean. Epe hori, kasu bietan ebazpena Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean hasiko da zenbatzen.

I. ERANSKINA. GAI-ZERRENDA**GAI OROKORRAK**

1. gaia: Estatuaren teoria: helburuak, osagaiak eta Estatuaren funtzioak. Estatu-motak eta gobernu-motak. Alderdi politikoak.
2. gaia: Espainiako Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Egitura eta oinarrizko edukia. Botere banaketa.
3. gaia: Espainiako Konstituzioan jasotako oinarrizko eskubide eta betebeharrak. Oinarrizko eskubideen babesa eta etendura. Oinarrizko eskubideen babes jurisdikzionala.
4. gaia: Botere legegilea. Gorte Orokorrak. Osaketa eta funtzioak. Ganberen arauketa eta funtzionamendua. Kontrol organoak: Herriaren defendatzailea eta Kontu Epaitegia.
5. gaia: Botere betearazlea. Gobernua. Gobernuaren eta botere legegilearen arteko harremana. Gobernuaren legebiltzar kontrola.
6. gaia: Botere judiziala. Justiziaren arauketa Konstituzioan. Espainiako Justizia Administrazioaren antolaketa: jurisdikzio ordenak, jurisdikzio organo motak eta hauen eskuduntzak.
7. gaia: Auzitegi Konstituzionala. Antolaketa eta eskumenak. Konstituziokontarakotasun eta babes-errekurtsoak, aginpide-gatazkak eta kontituziokontarakotasun-arazoa. Tokiko autonomiaren defentsaren auziak.
8. gaia: Estatuaren lurralde antolamendua. Autonomia Erkidegoak. Autonomia Estatutuak: esanahia eta oinarrizko edukia. Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen arteko eskuduntza banaketa sistema.
9. gaia: Euskadiko Autonomia Estatutua. Euskadiren eskuduntzak. Euskadiren botereak.
10. gaia: Eusko Jaurlaritza. Izendapena, eskuduntzak eta Lehendakariaren estatuto pertsonala. Eusko Jaurlaritzaren osaketa, eskuduntzak eta funtzionamendua. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa.
11. gaia: Herri Kontuen Euskal Epaitegia. Arartekoa. Euskadiko Justizia Auzitegiak.
12. gaia: Batzar Nagusiak eta Arabako Foru Aldundia. Aurrekariak eta egungo konfigurazioa. Osaketa, funtzionamendua eta eskuduntzak.
13. gaia: Europar Batasuna. Sorrera eta bilakaera. Batasuneko erakundeen antolaketa eta eskuduntzak.
14. gaia: Batasuneko ordenamendua. Itunak eta zuzenbide eratorria. Batasuneko zuzentzarauak eta arautegiak. Zuzenbidearen iturrien lehentasuna.
15. gaia: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea. Emakume eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa. Laudio Udaleko berdintasun-estrategia.

16. gaia: Lan Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legea. Laneko arriskuen prebentzioaren araudi esparrua aldatzen duen abenduaren 12ko 54/2003 Legea.

17. gaia: Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa: xedapen orokorrak, printzipioak eta pertsonen eskubideak.

18. gaia: Abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasun, informazio publikorako sarbide eta aginte onari buruzkoa: jarduera publikoaren gardentasuna.

GAI ESPEZIFIKOAK

A) Administrazio zuzenbide orokorra:

19. gaia: Administrazioa legearen eta zuzenbidearen menpe egotea. Zuzenbide publikoaren iturriak. Legea: lege motak. Ohitura. Zuzenbidearen printzipio orokorrak. Administrazioaren jarduna.

20. gaia: Erregelamendua: kontzeptua eta motak. Egiteko prozedura. Erregelamendu ahalmenaren mugak eta legez kanpoko erregelamenduen aurkako defentsa.

21. gaia: Administrazio Publikoaren jarrera juridikoa. Administrazioaren ahalmenak. Zuhurtziako ahalmena eta ahalmen arautua.

22. gaia: Prozeduran interesdunak. Jarduteko gaitasuna, interesdunaren kontzeptua, ordezkartza. Interesdunen identifikazioa eta sinadura administrazio prozeduran. Pertsonen eskubideak Administrazio Publikoarekin dituzten harremanetan.

23. gaia: Administrazio-egintza. Kontzeptua, elementuak eta motak. Administrazio egintzen baldintzak.

24. gaia: Administrazio egintzen eraginkortasuna: adierazpen autotutera. Betearazpena eta etendura. Jakinarazpena: edukia, epeak eta egitea. Huts egindako jakinarazpena. Argitaratzea.

25. gaia: Administrazio egintzen balio gabetasuna. Egintza deusezak eta deuseztagarriak. Administrazio egintza baliozkotzea. Administrazioaren kabuz berrikustea egintza eta xedapenak. Deuseztasun ekintza. Kaltegarritasun adierazpena. Egintzak ezeztatzea Akats materialak edo gertatzezkoak zuzentzea.

26. gaia: Administrazio-errekurtsoak. Printzipio orokorrak. Gora jotzeko errekurtsua. Berraztertze aukerako errekurtsua. Ezohiko berrikuspen-errekurtsoa. Administrazio errekurtsoen ordezkari prozedurak: adiskidetzea, bitartekartza eta arbitrajea.

27. gaia: Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Arauketa. Alderdiak. Aurkaratu daitezkeen egintzak. Prozedura orokorra. Sententzia eta honen betearazpena. Prozedura bereziak.

28. gaia: Administrazio prozedurei buruzko xedapen orokorrak eta prozeduren arauak. Interesdunaren eskubideak administrazio prozeduran. Hasiera, prozeduraren antolamendu eta instrukzioa.

29. gaia: Prozedura amaitzea. Ebazteko betebeharrak. Ebazpen espresuaren edukia: kongruentzia eta hasierako egoera ez okertzearen printzipioa. Ohiko amaiera. Administrazio isiltasunaren araubidea. Atzera egitea eta uko egitea. Iraungitzea.

30. gaia: Administrazioak derrigortzea: autotutera exekutiboaren printzipioa. Administrazio egintzak nahitatez betetzea: bitartekoak eta erabiltzeko printzipioak. Administrazioak zuzenean derrigortzea.

31. gaia: Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenaren printzipioak. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmena. Toki entitateen zigortzeko ahalmena.

32. gaia: Administrazio egintzaren formak. Sustapena eta horretarako baliabideak. Dirulaguntzen Lege Orokorraren Atariko Titulua eta Lehenengo Titulua.

33. gaia: Administrazio-polizia. Kontzeptuaren bilakaera. Poliziaren boterearen adierazpenak eta horren mugak.

34. gaia: Zerbitzu publikoa. Kontzeptuaren bilakaera. Zerbitzu publikoa kudeatzeko moduak.
35. gaia: Jabetza nahitaez kentzea. Kontzeptua, elementuak eta izaera juridikoa. Prozedura orokorra eta premiazko prozedura. Aldi baterako okupatzeagatik eta bestelako kalteengatik kalteordaina. Berme jurisdikzionalak.
36. gaia: Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea: esparru objektiboa eta esparru subjektiboa. Kontratu motak mugatzea. Erregulazio harmonizatuko kontratuak. Administrazio kontratuak eta kontratu pribatuak.
37. gaia: Sektore publikoko kontratazioari buruzko xedapen orokorrak. Arrazionaltasuna eta konsistentzia kontratazioan. Hitzartzeko askatasuna eta kontratuaren gutxieneko edukia. Kontratu burutzea eta kontratuaren forma. Baliogabetasun araubidea. Kontratazio arloko errekurtsio berezia. Aipamen berezia Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen Inguruko Errekurtsioen Administrazio Organoari.
38. gaia: Kontratuaren aldeak. Kontratazio organoa, eskuduntzak tokiko esparruan, kontratazio mahaia eta kontratatzailearen profila. Gaitasuna, kaudimena eta enpresariaren kontratatze debekuak.
39. gaia: Objektua, lizitazioaren oinarriko aurrekontua, balio estimatua, kontratuaren prezioa eta prezioa berrikustea. Kontratatzerakoan eskatu daitezkeen bermeak.
40. gaia: Obra kontratua: prestatze jarduerak, gauzatzea, aldatzea, betetzea eta suntsitzea. Lanen emakida kontratua: prestatze jarduerak, eraginak, betetzea eta iraungitzea.
41. gaia: Zerbitzuen kontratua: xedapen orokorrak, gauzatzea eta suntsitzea. Zerbitzuen emakida kontratua: mugaketa eta araubide juridikoa.
42. gaia: Hornidura kontratua: arauketa, gauzatzea, betetzea eta suntsitzea. Kontratu txikiak.
43. gaia: Administrazio Publikoen ondare erantzukizuna. Agintarien eta administrazio publikoan lan egiten duten langileen erantzukizuna.
44. gaia: Antolaketa administratiboa. Antolatzeko ahalmena. Organo administratiboak: kontzeptua eta motak. Kide anitzeko organoen garrantzi berezia.
45. gaia: Antolaketa administratiboaren printzipioak. Eskumena, hierarkia eta koordinazioa. Deszentralizazioa. Autonomia eta tutoretza.
46. gaia: Estatuko administrazioaren antolaketa. Organo nagusiak. Estatuko Kontseilua. Organo periferikoak.
47. gaia: Jabetza publikoak: tipologia. Jabari publikoa: kontzeptua, izaera eta elementuak. Jabari publikoko afektazioa eta mutazioak. Jabari publikoaren araubide juridikoa. Erabilera: erreserba eta emakida.
48. gaia: Administrazio Publikoen ondare pribatua. Araubide juridikoa. Administrazioaren ahalmenak eta eskuratu, erabili eta besterentzeko araubidea.
49. gaia: Funtzionario publikoak. Kontzeptua eta motak. Funtzio publikoaren egitura. Langile publikoei buruzko estatuko eta autonomia erkidegoko legeak.
50. gaia: Funtzio Publikoa. Funtzionario-harremana sortzea eta bukatzea. Funtzionarioen eskubideak eta betebeharrak. Tokiko funtzionarioen ordainsarien araubidea. Egoera administratiboak.
51. gaia: Giza baliabideen planifikazioa. Lan eskaintza publikoa. Langileak hautatzea. Lanpostuen zerrenda. Lanpostuak betetzea.
52. gaia: Funtzionarioen diziplina araubidea. Langile publikoen erantzukizun zibila eta penala. Funtzionario publikoen bateraezintasunak.

B) Toki eta foru zuzenbide administratiboa:

53. gaia: Tokiko araubidea: printzipio konstituzionalak. Tokiko autonomiaren Europako Karta. Tokiko autonomia eta tutoretza. Estatuko oinarrizko legeak eta araubidezko garapena.

54. gaia: Tokiko zuzenbidearen iturriak. Estatuko oinarrizko arauketa eta Autonomia Erkidegoen araudia tokiko araubidean. Sektoreko legediak tokiko araubidean duen eragina.

55. gaia: Lurralde Historikoak. Aurrekariak. Konstituzioan eta Estatutuan inkardinatzea. Lurralde Historikoei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea: egitura, edukia eta oinarrizko printzipioak. Eskumenak transferitzea eta eskuordetzea.

56. gaia: Arabako Lurralde Historikoaren foru antolaketa. Foru organoak. Batzar Nagusiak: aukeraketa, antolaketa, funtzioak, osaketa eta funtzionamendua. Foru Aldundia: osaketa, atribuzioak eta funtzionamendua. Ahaldu Nagusia: izendapena, estatutu pertsona eta kargua uztea. Foru diputatuak.

57. gaia: Tokiko hauteskunde sistema. Hautaezintasun eta bateraezintasun arrazoiak. Zinegotziak eta alkateak aukeratzea. Zentsura mozioa eta konfiantza arazoa tokiko esparruan. Hauteskunde-auzietako errekurtsioa. Tokiko korporazioetako hautetsien estatutua.

58. gaia: Udalerria. Historia. Bestelako toki erakundeak. Oinarrizko legedia eta legedia autonomikoa.

59. gaia: Udalerria. Kontzeptua eta elementuak. Udal-mugartea. Oinarrizko legedia eta legedia autonomikoa. Udal biztanleak. Biztanleen errolda. Bizilagunen trataera berezia. Atzerritarren eskubideak.

60. gaia: Araubide komuneke udalerrien antolaketa. Beharrezko organoak eta órgano osagarriak. Talde politikoak. Erregelamendu Organikoa.

61. gaia: Biztanle-kopuru handiko udalerrietako antolaketa. Kontzeju irekia eta bestelako araubide bereziak.

62. gaia: Euskadiko Toki Erakundeen Legea: V. Titulua (udalerrri bateko herritarren eskubide eta betebeharrak; zerbitzu-karta) eta VI. Titulua (Gobernu irekia; gardentasuna, datu irekiak eta herritarren parte-hartzea).

63. gaia: Udalaren eskumenak: zehazte sistema. Berezko eskumenak, eskumen partekatuak eta eskuordetuak. Gutxieneke zerbitzuak. Zerbitzuak erreserbatzea.

64. gaia: Toki erakundeetako kide anitzeko organoen bileren funtzionamendu araubidea eta akordioak. Aktak, ziurtagiriak, komunikazioak, jakinarazpenak eta akordioak argitaratea. Agiriak erregistratzea.

65. gaia: Tokiko erakundeen erregelamenduak egiteko ahala. Erregelamenduak eta ordenantzak. Egiteko prozedura. Bandoak.

66. gaia: Tokiko erakundeetako langileak. Motak eta aplikatu daitezkeen arauak. Toki zuzendaritzako langileak.

67. gaia: Tokiko funtzio publikoa eta bere antolaketa. Araubide juridikoa. Hautaketa eta lanpostuak betetzeko sistemak.

68. gaia: Tokiko funtzionarioen ordainsarien araubidea. Arauketa. Oinarrizko ordainsariak. Ordainsari osagarriak. Funtzionarioen bestelako eskubide ekonomikoak.

C) Hirigintza zuzenbidea:

69. gaia: Lurraldearen antolaketa. Arauketa Euskadin. Lurraldea antolatzeko tresnak. Hirigintzaren arloko estatuko eta autonomia erkidegoko arauak.

70. gaia: Hirigintza eta printzipio orokorrak, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen arabera. 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurrien ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua: irizpide orokorrak.

71. gaia: Lurzoruaren sailkapena. Sailkapen bakoitzaren deskribapena. Lurzoruaren sailkapena eta 2/2006 Legeak ezarritako sailkapenak.

72. gaia: Hirigintza antolaketa eta lurraldearen antolaketarekin duen lotura. Hirigintzako planeamendua: plan motak eta tramitazioa. Hiri Antolaketarako Plan Orokorra.

73. gaia: Antolaketa xehakaturia. Plan bereziak eta plan partzialak. Xehetasun-azterlanak eta planeamenduko beste baliabide batzuk: objektua, edukia eta tramitazioa.

74. gaia: Lurzoruaren ondare publikoa: xedea eta motak; osatzen duten ondasun eta baliabideak eta hauen destinoa; lurzoruaren udal ondarrerako aurrekontu xedapena, ondasunak besterentzea, lurzoruaren udal erreserbak.

75. gaia: Bestelako gauzatze tresnak: urbanizazio proiektuak eta obra osagarrien proiektuak. Urbanizazio lanen kontserbazioa eta lanak onartzea.

76. gaia: Hirigintza antolaketaren berme eta babeseko printzipio orokorrak. Hirigintza lizentziak: lizentzia behar duten egintzak eta honen tramitazioa.

77. gaia: Hirigintza arloko legaltasuna kontrolatzeko mekanismoak. Hirigintza-ikuskapena. Hirigintza arloko arau-haustekak eta zigorrak.

78. gaia: Ingurumenean eragina duten jardueretan Administrazioaren esku-hartzea eta kontrola. Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa: kontzeptua, prozedura eta ondorio juridikoak.

D) Finantza eta zerga zuzenbidea:

79. gaia: Toki Erakundearen aurrekontu orokorra: kontzeptua eta edukia. Aurrekontua exekutatzeke oinarriari buruzko aipamen berezia. Aurrekontua prestatu eta onartzea. Aurrekontua luzatzea.

80. gaia: Aurrekontu egitura. Gastu-aurrekontuko kredituak: muga, egoera eta lotura juridiko mailak. Kreditu aldaketak: motak, kontzeptua, finantzaketa eta tramitazioa.

81. gaia: Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren exekuzioa: faseak. Justifikatu beharreko ordainketak. Kutxa finkoko aurrerakinak. Urte anitzeko gastuak. Gastuen tramitazio aurreratua. Gastu proiektuak. Finantzaketa lotuko gastuak: finantzaketa desbideraketei buruzko aipamen berezia.

82. gaia: Aurrekontuaren likidazioa. Tramitazioa. Kreditu gerakinak. Aurrekontu-emaitza: kontzeptua, kalkulua eta doikuntzak. Diruzaintzako gerakina: kontzeptua eta kalkulua. Finantzaketa lotuko gastuetarako eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren azterketa. Aurrekontuaren kontsolidazioa.

83. gaia: Aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna. Printzipio orokorrak. Toki korporazioen aurrekontu egonkortasun, zor publiko eta gastu erregela helburuak: hauek ezartzea eta ez betetzearen ondorioak. Ekonomia eta finantza planak: edukia, tramitazioa eta jarraipena. Finantza doikuntza eta saneamendu planak. Toki erakundeek finantza informazioa ematea.

84. gaia: Toki Administrazioaren kontabilitate-sistema: printzipioak, eskumenak eta kontabilitatearen helburuak. Kontabilitatearen instrukzioak: tramite laburrari buruzko aipamen berezia. Kontabilitate-agiriak eta kontabilitate-liburuak.

85. gaia: Toki erakundearen kontu orokorra: edukia, prestakuntza, onespina eta kontu ematea. Udaltzari, kudeaketa organoei, barneko kontrol organoei eta beste Administrazio publikoei eman beharreko beste informazio bat.

86. gaia: Barne kontrolaren kontzeptua, eta aplikagarritasuna sektore publikoari. Toki erakundearen eta menpeko erakundearen ekonomia eta finantza jardueraren barne kontrola. Kontu-hartzailearen funtzioa: eremu subjektiboa, eremu objektiboa eta modalitateak. Aipamen berezia eragozpenei.

87. gaia: Eraginkortasun eta efizientziarako kontrol finantzarioak: eremu subjektiboa, eremu objektiboa, prozedurak eta txostenak. Auditoretza finantza kontrola gauzatzeko. Sektorre publiko auditoretzaren arauak.

88. gaia: Toki ogasunen baliabideak. Tokiko tributuak: printzipioak. Toki erakundeen erregelamendu ahalmena tributu arloan: ordenantza fiskalen edukia, tramitazioa eta tributuak ezartzeko eta eta antolatzeke egintzak aurkaratzeko araubidea. Tributu arlokoak ez diren baliabideak ezartzea.

89. gaia: Toki ogasunen baliabideak kudeatu, likidatu eta biltzea. Okerreko diru-sarrerak. Diru-bilketa borondatezko aldiari eta betearazpen aldiari. Toki erakundeen tributu kudeaketako egintzak administrazio bidean berrikustea. Beste erakunde publiko batzuek egindako kudeaketa eta diru-bilketa.

90. gaia: Ondasun higiezinaren gaineko zerga. Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga. Hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga. Tasak eta prezio publikoak: Desberdintasun nagusiak. Audio Udalean indarrean dauden ordenantza fiskalak.

Arauei egiten zaizkien aipamenek izaera informatiboa dute. Horrenbestez, hautatze-prozesu honetako hautagaiei dagokie emandako araudia egokitu eta eguneratzea. Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion Aldizkari Ofizialean, edo kasuan kasu dagokion aldizkari ofizialean argitaratzen denean indarrean dagoen araudia da jakin beharrekoa.

BIGARRENA. Argitaratzea ALHAO-n 2020ko laneskaintza publikoari dagozkion administrazio orokorreko 5 teknikari-plazak betetzeko langileak hautatzeko prozesuaren oinarri espezifikoak (2020ko uztailaren 3ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez onetsi zen lan-eskaintza publikoa, eta 2020ko abuztuaren 10ean argitaratu, ALHAO-ren 89. zenbakian) eta egitea hautaketa-prozesuaren deialdia.

HIRUGARRENA. Laburbilduta argitaratzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2020ko laneskaintza publikoari dagozkion administrazio orokorreko 5 teknikari-plazak betetzeko langileak hautatzeko prozesuaren oinarri espezifikoak (2020ko uztailaren 3ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez onetsi zen lan-eskaintza publikoa, eta 2020ko abuztuaren 10ean argitaratu ALHAO-ren 89. zenbakian) eta hautaketa-prozesuaren deialdia, oinarri espezifikoak ALHAO-ren zein zenbakitan argitaratu diren adierazita.

LAUGARRENA. Laburbilduta argitaratzea Estatuko Aldizkari Ofizialean 2020ko lan-eskaintza publikoari dagozkion administrazio orokorreko 5 teknikari-plazak betetzeko langileak hautatzeko prozesuaren oinarri espezifiko hauek (2020ko uztailaren 3ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez onetsi zen lan-eskaintza publikoa, eta 2020ko abuztuaren 10ean argitaratu ALHAO-ren 89. zenbakian) nahiz hautaketa-prozesuaren deialdia, oinarri espezifikoak ALHAO-ren zein zenbakitan argitaratu diren adierazita.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeke errekurtsioa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Aukerako berraztertze-errekurtsorik jartzen ez bada, bide judiziala irekiko da, eta, beraz, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango da Gasteizko Eduki Administratiboko Epaitegian, txandaka, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laudio, 2021eko martxoak 29a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE